



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

2012KO MEMORIA **Joko Arloa**

Aurkibide orokorra

	Orr.
1. Aurkibide orokorra	2
2. Grafikoen aurkibidea	3
3. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenak.	4
4. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren partaidetza duten organoak.	6
5. Zerbitzuen banaketa funtzionala.	7
- Zerbitzu zentralak (Lakua)	7
- Lurralde-bulegoak	7
- Ikuskaritza Zerbitzua (Ertzaintzako Joko eta	
- Ikuskizun Unitatea)	8
- Ikuskaritza-zerbitzua (laborategiak).	8
- Baliabide eta zerbitzu teknikoak	9
6. 2012-12-31ko datu estatistikoak	10
• Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak kontrolatu beharreko	
joko-jarduerak	10
• Jokoaren arloko baimenak	11
• Jokoko bestelako izapideak	12
• Joko-makinen enpresak	13
• Jokorako materialaren homologazioa	14
• EAEko joko-lokalak	15
• Apustu orokorrak	16
• Diru-sarrerak. Tasak	19
• Zehapen-espedienteak eta errekurtsuak.	22
• Ikuskaritza-lana.	26
7. 2012ko agenda	27
8. Arau-egitura.	28

Grafikoen aurkibidea

- 1. grafikoa** Jokoaren arloko baimenak (urteko aldakuntza)
- II. grafikoa:** Jokoko bestelako izapideak (urteko aldakuntza)
- III. grafikoa:** Enpresa fabrikatzaileak eta merkaturatzaileak
- IV. grafikoa:** Jokorako materialaren homologazioa (urte arteko bilakaera)
- V. grafikoa:** EAEko joko-lokalak. (lurralde historikoen eta urteko aldakuntzaren arabera)
- VI. grafikoa:** Apustu-jardueraren ehunekoa (lurralde historikoen arabera)
- VII. grafikoa:** Apustu-jardueraren ehunekoa (enpresa esleipendunen arabera)
- VIII. grafikoa:** Tasen ondoriozko diru-sarrerak (lurralde historikoen arabera)
- IX. grafikoa:** Tasak (bildutako tasen kopurua eta lurralde historikoen arabera ehunekoa)
- X. grafikoa:** Zehapen-espedienteak, urte arteko aldakuntza (2011-2012)
- XI. grafikoa:** Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitatearen ikuskaritza-lana (urte arteko aldakuntza)

ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

Apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du.

Dekretu horren 15. artikuluekin bat etorritz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari jokoaren arloko ahalmen eta eginkizun hauek dagozkio:

- *Ausazko jokoei eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueri buruzko politika publikoak lantzea.*
- *Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan Segurtasun Sailari esleitutako ahalmen guztiak baliatzea, beste organo batzuei dagozkienak izan ezik.*
- *Datuak mantentzea eta ustiatzea eta, joko eta ikuskizunei buruzko urteko memoria prestatze aldera, estatistikak eta azterketak egitea.*
- *Joko eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueretan zehatzeko ahalmena kontrolatu, ikuskatu eta erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.1 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3.b) artikuluan jasotako zehapenak eta indarrean dauden arauak izenda diezazkiotenak jarritz. Halaber, hauxe dago: kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean aurreikusitako zehapen-erregimenari buruzko espedienteak izapidetzea; hori dela eta, arau-hauste arin eta larriei dagozkien zehapenak jarriko ditu. Zehapen-espediente horiek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloak izapidetuko ditu.*

Zuzendaritza honen menpean dauden Joko eta Ikuskizun arloko Lurralde Bulegoek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, beren lurralde-eremuan ahalmen eta eskumen hauek baliatuko dituzte:

- *«B» motako makinei eta jokorako makina laguntzaileei dagozkien izapideak egitea eta baimenak ematea. Nolanahi ere, salbuespen izango dira honako hauei dagozkien baimentzeak: ustiapen-baimenak eta horien eskualdatzeak, erredentzio-makinak edo «AR» izenekoak ustiatzeko erantzukizun-adierazpenak jasotzea, eta jolas-aretoak ustiatzea.*
- *Beharrezko lanbide-dokumentuak ematea eta berritzea, bingo-aretoetan jardun ahal izateko.*
- *Lokal publikoen dokumentazioa eta datu-baseak kudeatzea eta eguneratzea, baldin eta horien kontrola Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari badagokio.*
- *Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.*

Ezarritako eginkizunak betetze aldera, Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatea funtzionalki Joko eta Ikuskizun Unitatearen menpean egongo da, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 34.2 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 25. artikuluari jarraikiz.

Orobat, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, joko eta ikuskizunen politikak finkatzeko, horretarako behar duen informazioa eskatu ahal izango dio Ertzaintzaren Zuzendaritzari.

BERE PARTAIDETZA DUTEN ORGANOK

- Jokoaren Euskal Kontseilua.
- Euskadiko Apustuen Batzordea.
- Jokoaren Politiken Kontseilua – autonomia-erkidegoak eta Ogasun Ministerioa.
- GREF (Gaming Regulators European Forum), Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean.

ZERBITZUEN BANAKETA FUNTZIONALA

ZERBITZU ZENTRALAK (LAKUA)

HELBURUA: ikuskizunetako jarduerak antolatzea eta koordinatzea.

FUNTZIOAK:

- Zerbitzuen plangintza, koordinazioa eta kontrol orokorra egitea.
- Zuzendaritzako aplikazio informatikoen eta datu-baseen kontrola eta jarraipena egitea.
- Joko eta ikuskizun arloko baimenak ematea.
- Dokumentuen eta prozeduren estandarizazioa.
- Ikuskaritzaren plangintza eta koordinazio orokorra.
- Joko eta ikuskizun arloan aholkularitza juridiko espezializatua ematea.
- Arau-garapena.
- Jokoaren Euskal Kontseilua, Ikuskizunen Euskal Kontseilua, Zezen-gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailea eta Euskadiko Apustuen Batzordea koordinatzea eta horien jarraipena egitea.
- Memoriak, estatistikak eta txosten orokorrak.
- Joko eta ikuskizun arloko zehapen-espeditzeak izapidetzea.
- Herritarren jarrerei, adingabeei eta menpekotasunezko jokabideen kontrolari dagokienez, jokoak gizartean duen eraginari buruzko azterketak eta lanak egitea.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina publikoak egitea, joko arduratsua eta bermeduna lortzeko.

LURRALDE ZERBITZUAK.

HELBURUA: izapidetzea eta herritarrentzako arreta zuzena.

Joko eta ikuskizun arloko Lurralde Bulegoek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, beren lurralde-eremuan ahalmen eta eskumen hauek baliatuko dituzte:

- a) Izapidetzea eta "A" motako makinei buruzko baimenak ematea, baita "B" makinei buruzkoak ere. Nolanahi ere, salbuespen izango dira ustiapen-baimenak eta horien eskualdatzeak.
- b) Beharrezko lanbide-dokumentuak ematea eta berritzea, bingo-aretoetan jardun ahal izateko.
- c) Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.

BESTE FUNTZIO BATZUK:

- Geroagoko izapidetzeari begira, dokumentazioa jasotzea.
- Herritarrei arreta eta aholku ematea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko jarduerak, langileak eta instalazioak kudeatzea eta kontrolatzea.
- Datu-baseak mantentzea eta gainbegiratzea.
- Prozedurak kontrolatzea eta gainbegiratzea.

- Araudia aplikatzea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko memoriak, estatistikak eta txostenak.

IKUSKARITZA ZERBITZUA (Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitatea)

HELBURUA: joko eta ikuskizunetako jarduerak zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

FUNTZIOAK:

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako jarraibideak eta indarreko araudia kontuan hartuta:

- Jokoaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa zaintzea, ikuskatzea eta betearaztea.
- Jokorako nahitaezko baimenik ez duten materialak eta lokalak zigilatzea, konfiskatzea, ixtea edo bertan behera utzaraztea.
- Beren funtzioak betetzetik sortutako aktak egitea eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako organo eskudunari helaraztea.

IKUSKARITZA ZERBITZUA (laborategiak).

- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 9 laborategi ditu akreditatuta joko-makinen eta -sistemen aurretiazko probak egiteko. Hona hemen:
 - LABEIN- TECNALIA
 - LGAI TECHNOLOGICAL CENTER, S.A.
 - AT4 WIRELESS, S.A.
 - BMM SPAIN TESTLABS,
 - JOLAS MAKINEI PROBAK ETA ENTSEGUAK EGITEKO OVIEDOKO UNIBERTSITATEKO ZENTROA
 - GLI EUROPE BV
 - JOLAS ETA AUSAZKO JOKOETARAKO MAKINEI ENTSEGUAK EGITEKO LABORATEGIAK, INDUSTRIA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO FUNDAZIOARENAK
 - NMI CERTIN BV
 - SLOVENIAN INSTITUTE OF QUALITY AND METROLOGY EL010

BALIABIDE ETA ZERBITZU TEKNIKOAK

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak berriazko baliabide teknologikoak ditu ikuskizunen arloa bezalako esparru konplexuen eta bizitasun handikoak direnen kudeaketari, ikuskapenari eta kontrolari aurre egin ahal izateko. Horien artean hauek ditugu:

- Baimenak prozesatzea eta kontrolatzea kudeaketarako eta irudirako sistema informatiko integratuaren bidez, horrek balio baitu zuzendaritzako gaien ohiko izapidetzerako oinarritzko euskarri gisa.
- Ikuskapenerako aplikazio informatikoa.
- Zehapeneterako aplikazio informatikoa.
- Artxibo-sistema digitalizatu optikoa, non administrazio-agiriak fidagarritasunez eta erabiltzeko moduan bildu eta zaintzen diren.
- Jokoak ikuskatu eta kontrolatzeko software-analizatzaileak.
- Ikuskapena eta kontrola egiteko ikus-entzunezko hainbat material.
- Joko-makinen probetarako eta homologaziorako joko-simulatzaile programagarriak.
- Joko-baimenak telematikoki izapidetzeko sistema, internet bidez.

2012-12-31KO DATU ESTADISTIKOAK

Memoria honetan 2012ko ekitaldian zehar Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak izandako jarduerari buruzko daturik garrantzitsuenak eskaintzen dira. Jokoarekin loturiko beste jarduera batzuk badaude, baina dokumentu honetan ez dira jaso. Izan ere, jarduera horiek toki- edo eskualde-eremuan egiten dira -gainera, noizean behin- eta jende gutxiri lotuta daude. Horien artean herri-kirola, pilotalekuetako apustuak, etab. ditugu, eta eragin ekonomiko txikia dute.

Datuak eta estatistikak lantzeko erabilitako iturriak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarenak dira (Izapide eta Baimenatarako Zerbitzua, Zehapen eta Errekurtsoen Zerbitzua, lurralde-bulegoak, baita Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatea ere)

J. ETA IK. ZUZENDARITZAK KONTROLATU BEHARREKO JOKO-JARDUERAK


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Makina hauen enpresa operadoreak				
"A" makinak	40	99	35	174
"B" makinak	67	189	94	350
"C" makinak		1	1	2
Apustu-makinak		2	1	3
Joko-makinetarako baimenak				
"A" makinak	492	1772	697	2961
"B" makinak	1667	6726	3272	11665
"C" makinak		45	45	90
Apustu-makinak	316	852	546	1714
Apustu-makinak apustu-lokaletan eta gaitutako lokaletan	25	126	73	224
Apustu-makinak ostalaritzan eta bestelakoetan	291	726	473	1490
Bingoak	3	11	3	17
Edukiera	1160	3734	1242	6136
Lanbide-txartelak	30	329	55	414
Joko-aretoak	22	76	51	149
"Bs" makinaren kopurua*	289	1167	688	2144
Kasinoak		1	1	2
Edukiera		600	525	1125
Lanbide-txartelak		248	122	370
Apustu-lokalak	3	15	10	22
Hipikako apustuak (Enpresak)	0	0	1	1
Zozketak	1	1	1	3
Ausazko konbinazioak	21	45	18	86*

*: Joko-aretoetarako makina bereziak.

JOKOAREN ARLOKO BAIMENAK

Joko-makinak		
	2011	2012
A makinetarako baimenak (Altak)	7	2
A makinetarako baimenak (Bajak)	530	25
B makinetarako baimenak (aldi baterako bajak, ustiatzeko aukera)	430	653
B motako baimenak eskualdatzea (baimen-kopurua)	953	814
A motako baimenak eskualdatzea (baimen-kopurua)	55	0
A motako enpresa operadoreak (Altak)	3	1
A motako enpresa operadoreak (Bajak)	16	3
B (Altak), B eta J motako enpresa operadoreak	8	11
B motako enpresa operadoreak (Bajak)	23	18
Akzioak edo partaidetzak eskualdatzea	14	7


I. grafikoa
Jokoaren arloko baimenak (urteko aldakuntza)



"A" motako makinaren parkearen jaitziera gogorra (530-25) gertatu da beharbada bere erregulazioa kanpoan geratu delako; hain zuzen, apirilaren 23ko 7/2012 Legea (Omnibus Legea) indarrean sartzearen ondorioz. Arrazoi bera aurkitzen dugu baimen horien eskualdaketa datuan.

Jokoko bestelako izapideak		
	2011	2012
Ziurtagiriak	38	60
Abalen itzulketa	75	184

II. grafikoa
Jokoko bestelako izapideak (urteko aldakuntza)




Izapide arrunten datu kuantitatiboetan (ziurtagiriak eta abalen itzulketa) aldakuntzak daude, beharren arabera eta partikularrek edo beste batzuek -hala nola epaitegiak eta herri-administrazioak (foru-aldundiak)- eskatzen duten informazioaren arabera. Atal honetan aipatutako joko-izapideek gorakada nabarmena izan dute (ziurtagiriak eta abalen itzulketa). Horren arrazoia da apirilaren 23ko 7/2012 Legea (Omnibus Legea) indarrean sartu zela eta, horregatik, A motako makinak eta jolas-aretoak desarautu zituen. Ondorioz, ezarritako abalak itzuli ziren.

Joko-makinen enpresak

	2011	2012
Fabrikatzaileak	3	2
Merkaturatzaileak	4	1

III. grafikoa
Enpresa fabrikatzaileak eta merkaturatzaileak




Alde honetan ez dago aldaketa nabarmenik eta azken ekitaldiotako ohiko joera mantentzen da.

JOKORAKO MATERIALAREN HOMOLOGAZIOA

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
"A" motako makinaren modeloak	13	4	3	12	17	4	53
"B" makinaren modeloak	26	26	27	118	86	67	350
"C" makinaren modeloak		3	4	15	17	1	40
Makina laguntzaileen modeloak			1	1			2
Sistema interkonektatuak		1	--	3	3	1	8
"B" makinaren merkataritza-probak	5	1	1		14	26	47
"B" makinaren prototipo-probak			--				0
"BG" makinaren prototipo-probak		140	130				270
"P" motako apustu-makinak		3	--	1	0	2	6
On-line apustu-sistemak						2	2
Jokorako beste material bat	1		--	--	1		2
Guztira	45	178	166	150	138	101	780

IV. grafikoa Jokorako materialaren homologazioa (urte arteko bilakaera)




Makina saridunen materialaren homologazioari buruzko daturik adierazgarriena da A makinaren homologazio-kopurua jaitsi egin dela. Lehen aipatu den bezala, hori gertatu da apirilaren 23ko 7/2012 Legea (Omnibus Legea) indarrean sartzearen ondorioz. Bestetik, B makinaren merkataritza-proben kopurua nabarmen handitu da eta apustu orokorretarako bi terminal homologatu dira.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JOKO-LOKALAK

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2011, guztira	2012, guztira
Kasinoak	0	1	1	2	2
Bingoak	3	11	3	20	17
Joko-aretoak	22	76	51	149	149
Jolas-aretoak	2	8	4	17	14
Apustu-lokalak	3	15	10	22	28
LOKALAK GUZTIRA	30	111	69	210	216

V. grafikoa
EAEko joko-lokalak. (Lurralde historikoen eta urteko aldakuntzaren arabera)



Joko-lokalei buruzko datuek 2011. urteko datuen antzeko joera dute. Azpimarratzekoa da apustu-lokalak irekitzeari dagokionez, hazkuntza egon dela (% 20); hain zuzen, azpisektoreko jarduera hazi egin baita eta, bingoena, ordea, pixkanaka eta etengabe gutxitu egin baita.

APUSTU OROKORRAK

2011ko ekitaldiko memorian bezala, honetan ere apustu orokorren sektoreari buruzko datuak sartu dira. Jokoaren arloan apustu orokorren azpisektorea bereganatzen ari den interes ekonomikoa eta garrantzia direla eta, egokitzat jo da Euskal Autonomia Erkidegoan apustuen esleipendunak diren enpresen jardueraren gaineko datuak agertzea. Hurrengo taulan garrantzirik handieneko datu ekonomikoak agertzen dira (apustu-kopurua, bildutako dirua, emandako sariak eta bilketa garbia), datuak lurralde historikoen arabera bereizita, eta horien barruan apustuak egin diren lokalen mota kontuan hartuta.

2011ko ekitaldian agertzen denaz bestera, aipatutako zifrek ageriko errealitatea erakusten dute. Izan ere, aurreko urtean enpresen artean zegoen negozio-bolumenaren aldea nabarmena zen eta horietako enpresa bati buruzko datuak (2. enpresa) beste enpresei buruzko datuen baturaren balioak ziren. 2012an, ordea, operadoreetako bik emaitzak berdindu dituzte eta horietako bat urrun geratu da.

DATU EKONOMIKOAK

2012. urtea

		Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia	
(1. esleipenduna)	ARABA	Apustu-lokala	145.575	995.283,73 €	770.309,37 €	224.974,36 €
		Ostalaritza	513.991	4.216.767,53 €	3.485.873,48 €	730.894,05 €
	BIZKAIA	Apustu-lokala	553.576	4.051.275,69 €	3.296.063,09 €	755.212,60 €
		Ostalaritza	933.842	5.347.352,99 €	4.189.679,67 €	1.157.673,32 €
	GIPUZKOA	Apustu-lokala	385.944	2.652.289,11 €	2.110.383,37 €	541.905,74 €
		Ostalaritza	863.991	5.075.113,25 €	3.910.164,79 €	1.164.948,46 €
GUZTIRA		3.396.919	22.338.082,30 €	17.762.473,77 €	4.575.608,53 €	

		Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia	
(2. esleipenduna)	ARABA	Apustu-lokala	312.062	2.876.098,90 €	2.531.535,53 €	344.563,56 €
		Ostalaritza	1.496.360	10.410.227,08 €	8.955.077,65 €	1.455.149,37 €
	BIZKAIA	Apustu-lokala	1.761.929	11.431.791,20 €	10.063.915,53 €	1.367.875,83 €
		Ostalaritza	5.078.224	25.602.268,53 €	21.471.851,64 €	4.130.416,30 €
	GIPUZKOA	Apustu-lokala	812.429	8.581.925,80 €	7.469.505,24 €	1.112.419,80 €
		Ostalaritza	2.442.552	16.101.899,89 €	13.669.566,44 €	2.432.333,33 €
GUZTIRA		11.903.556	75.004.211,40 €	64.161.452,03 €	10.842.758,19 €	

		Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia	
(3. esleipenduna)	ARABA	Apustu-lokala	423.998,00 €	2.352.885,00 €	2.003.674,00 €	349.211,00 €
		Ostalaritza	704.264,00 €	5.850.317,00 €	4.900.186,00 €	950.131,00 €
	BIZKAIA	Apustu-lokala	1.432.749,00 €	10.730.383,00 €	9.261.839,00 €	1.468.544,00 €
		Ostalaritza	3.147.142,00 €	22.648.557,00 €	18.617.012,00 €	4.031.545,00 €
	GIPUZKOA	Apustu-lokala	790.652,00 €	8.075.668,00 €	6.923.084,00 €	1.152.584,00 €
		Ostalaritza	1.575.773,00 €	12.773.549,00 €	10.608.920,00 €	2.164.629,00 €
GUZTIRA		8.074.578,00 €	62.431.359,00 €	52.314.715,00 €	10.116.644,00 €	





		Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia	
Hiru esleipendunak, guztira	ARABA	Apustu-lokala	881.635,00 €	6.224.267,63 €	5.305.518,90 €	918.748,92 €
		Ostalaritza	2.714.615,00 €	20.477.311,61 €	17.341.137,13 €	3.136.174,42 €
	BIZKAIA	Apustu-lokala	3.748.254,00 €	26.213.449,89 €	22.621.817,62 €	3.591.632,43 €
		Ostalaritza	9.159.208,00 €	53.598.178,52 €	44.278.543,31 €	9.319.634,62 €
	GIPUZKOA	Apustu-lokala	1.989.025,00 €	19.309.882,91 €	16.502.972,61 €	2.806.909,54 €
		Ostalaritza	4.882.316,00 €	33.950.562,14 €	28.188.651,23 €	5.761.910,79 €
GUZTIRA		23.375.053,00 €	159.773.652,70 €	134.238.640,80 €	25.535.010,72 €	

APUSTU OROKORRAK

JARDUERAREN EHUNEKOAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia
Araba	% 15,38	% 16,71	% 16,84	% 15,88
Bizkaia	% 55,22	% 49,95	% 50,00	% 50,56
Gipuzkoa	% 29,40	% 33,33	% 33,16	% 33,56

VI. grafikoa
Apustu-jardueraren ehunekoak (Lurralde historikoen arabera)







APUSTU OROKORRAK

JARDUERAREN EHUNEOAK ENPRESA ESLEIPENDUNEN ARABERA

Enpresa	Apustu kop.	Bildutako dirua	Sariak	Garbia
(1. esleipenduna)	% 14,53	% 13,98	% 12,82	% 17,92
(2. esleipenduna)	% 50,92	% 46,94	% 49,42	% 42,46
(3. esleipenduna)	% 34,54	% 39,07	% 37,765	% 39,625

**VII. grafikoa:
Apustu-jardueraren ehunekoak (enpresa esleipendunen arabera)**




DIRU-SARRERAK / TASAK

2012. urtean ere sartu ditugu Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak sortutako diru-sarrerei buruzko datuak; hain zuzen, administrazio-tasengatiko bilketari loturikoak (fiskalak ez direnak). Datuen azterketatik ondorioztatzen da, lurralde historikoaren ikuspuntutik, Bizkaia dela diru gehien biltzen duen lurraldea, beste bi lurraldeetako bilketen batura ere gaitututa.

DIRU-SARRERAK

TASEN ONDORIOZKO DIRU-SARRERAK	
Zentro kudeatzailea	Zenbatekoa
LAKUA	12.022,76
ARABA	22.703,95
BIZKAIA	114.538,26
GIPUZKOA	65.686,81
GUZTIRA	214.951,78


VIII. grafikoa
Tasen ondoriozko diru-sarrerak (lurralde historikoen arabera)



ADMINISTRAZIO-TASAK KONTZEPTUEN ARABERA

JOKOAREN GAINEKO ADMINISTRAZIO-TASAK					
KONTZEPTUA	LAKUA	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTI RA
Jokoa handitzea / aldatzea	7	2			9
Instalatzeko baimena		83	151	309	543
Joko-enpresen baimena		1			1
Lokalaren baimena		1	2	6	9
Enpresa operadoreen baimena		2	5	6	13
Baimena ematea		28	28	38	94
Altzariaren diseinua aldatzea				1	1
Makina-trukea	5	911	3.263	5.232	9.411
Lokal-aldaketa		47	281	832	1.160
Lanbide-txartelaren alta		4		10	14
Titular-aldaketa					0
Memoriaren bertsio-aldaketa	33	4			37
Generikoak	16	69	350	382	817
Homologazioa	69	3		5	77
Merkataritza-proba				29	29
Lokal-trukea		16	26	17	59
Orri-berritzea		60	211	421	692
Eskualdatzea		8	32	89	129
LURRALD. TASAK GUZTIRA	130	1.239	4.349	7.377	13.095
TASAK GUZTIRA			13.095		
BILDUTAKO DIRUA GUZTIRA			214.951,78 €		

IX. grafikoa
Tasak (bildutako tasen kopurua eta lurralde historikoen arabera)



IKUSKIZUN ARLOAN IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK ETA ERREKURTSOAK

JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAKO LEGE AHOLKULARITZA ARLOAN 2012. URTEAN IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK.

Hurrengo tauletan agertzen dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloan izapidetutako espediente guztiak, mota hauek bereizita:

- Zehapen-espedienteak Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen aurkako arau-hausteengatik.
- 4/1991 Legeari buruzko zehapen-espedienteak ez irekitzeko egindako errekerimenduak eta ohartarazpenak.
- Joko-lokaletan sartzeko debekuari buruzko espedienteak, Jokoa Arautzeko Legearen 23.4.c artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumeneko gaietan emandako ebazpenen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoen ebazpena.
- Joko, ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen erabiltzaileek aurkeztutako erreklamazio-orrien izapidetza.

A.- JOKOAREN ARLOKO ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK

Izapidetutako zehapen-espediente guztien artean, 21 dira Jokoa Arautzeko 4/1991 Legearen kontrako arau-hausteengatik. Espedienteak hurrengo tauletan daude banakatuta egintza-mota, arau-haustearen larritasuna eta egintzak zein lurralde historikotan gauzatu ziren kontuan izanda. Nabarmentzekoak dira, azkenik, jokorako elementuak zigilatu edo konfiskatzeko kautelazko neurriak eman ziren espedienteen kopurua.

JOKOAREN ARLOAN IZANDAKO ZEHAPEN ESPEDIENTE GUZTIAK	21
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	17
2012an ebatzitakoak	9
2012an ebatzi gabe daudenak	8
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	4

ARAU-HAUSTE DIREN EGINTZEN ONDORIOZ IZANDAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	21
Legez kontrako jokoa	12
Adingabeei jokatzeko uztea	3
Autodebekatuei jokatzeko uztea	2
Joko eta ostalaritzarako lokalen bereizketa	2
Sartzeko sistema ez kontrolatzea	1
Baimenik gabe ausazko konbinazioa antolatzea	1

ARAU-HAUSTEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	21
Oso larriak	7
Larriak	0
Arinak	5
Largetsitakoak	1
2012an ebatzi gabe daudenak	8

ARAU-HAUSTEA EGIN ZEN LURRALDEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK	21
Araba	5
Bizkaia	8

Gipuzkoa	8
KONFISKATZEKO KAUTELAZKO NEURRIA DUTEN ESPEDIENTEAK	11

B.- ERREKERIMENDUAK ETA OHARTARAZPENAK

Zehapen-espeditenteak irekitzea saiheste aldera errekerimenduak eta ohartarazpenak egin dira joko zein ikuskizun arloan.

ERREKERIMENDUAK ETA OHARTARAZPENAK	4
Errekerimenduak	0
Ohartarazpenak	4

C.- JOKO-LOKALETAN SARTZEA DEBEKATZEKO ESPEDIENTEAK

Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1191 Legearen 23.4.c artikulua Herrizaingo Sailari ahalmena ematen dio joko-lokaletan sarrera debekatzeko, betiere horretarako bideratutako espeditentea izapidetu ondoren, pertsona gehenez urtebeteko epean debekatuen zerrendan sartuz.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2012. urtean zehar 35 espeditente izapidetu ditu; hain zuzen, 31 kasinoetan sartzeko debekuari buruzkoak eta 4 bingo-aretoetan sartzeko debekuari buruzkoak.

JOKO-LOKALETAN SARTZEA DEBEKATZEKO ESPEDIENTEAK	35
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	30
2012 hasi eta ebatzitakoak	29
2012an ebatzi gabe daudenak	1
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	5

BINGOETAN SARTZEA DEBEKATZEKO ESPEDIENTEAK	4
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	4
2012 hasi eta ebatzitakoak	4
2012an ebatzi gabe daudenak	0
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	0

KASINOETAN SARTZEA DEBEKATZEKO ESPEDIENTEAK	31
GRAN CASINO BILBAO	21
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	16
2012 hasi eta ebatzitakoak	15
2012an ebatzi gabe daudenak	1
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	5
GRAN CASINO KURSAAL	10
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	10
2012 hasi eta ebatzitakoak	10
2012an ebatzi gabe daudenak	0
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	0

D.- GORA JOTZEKO ERREKURTSOEN ESPEDIENTEAK

Hurrengo tauletan bereizten dira zehapen-ebazpenen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsioengatik izapidetu ziren prozedurak, baita zehapenezkoak ez ziren beste ebazpen batzuei buruzkoak ere.

Ebazpen baiesleen, ezesleen eta partzialki baiesleak direnen kopurua ere kuantifikatzen da, baita administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratutakoena ere.

2012AN EBATZITAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOAK	27
EBAZPEN ZEHATZAILEEN KONTRAKOAK	18
ZEHATZEKO EZ DIREN EBAZPENEN KONTRAKOAK	9
B makina instalatzeko baimena irautitzea	3
B makinak instalatzeko baimenak sinatzeko ahalmena	1
Apustuei buruzko erreklamazioen artxiboa	1
Ordutegiaren luzapena ukatzea	3
Txartel bidezko jokoaren antolatze baimena ukatzea	1

BAIESLEAK	2
EZESLEAK	24
PARTZIALKI BAIESLEAK	1
ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIBIDEAN AURKARATUTAKOAK	6

E.- ERREKLAMAZIO ORRIAK

2012an zehar 325 erreklamazio-orri izapidetu dira, horietako 149 jokoaren arloan eta 168 ikuskizunen arloan, eta 8 beste organo batzuetara bidali dira erreklamazioaren xedea zuzendaritza honen eskumen-eremukoa ez izateagatik. Nabarmentzekoa da erreklamazio-kopuruak izan duen hazkuntza.


IZPIDETUTAKO ERREKLAMAZIO GUZTIAK (JOKOA)	194
Jokoaren arloa	178
Eskumenik eza	16

JOKOAREN ARLOA	
ERREKLAMAZIOAREN XEDE DIREN GAIAK	
Apustuak	102
Sarrera ukatzeko eskubidea	7
B makinaren funtzionamendu okerra	18
Sariak ordaindu gabe geratzea	19
% 70etik beherako saria	9
Joko-arauak	12
B makinaren erreserba	3
Begirunerik gabeko tratua	8
GUZTIRA	178

LABURPEN-TAULA

	2011	2012
Baimenik gabeko ausazko konbinazioak	0	1
Baimenik gabeko beste joko batzuk	6	12
Joko-lokalean sarrera debekatuta duen pertsonari sartzen uztea	2	2
Adingabeei jokatzen uztea	1	3
Zigilatze bidezko neurria duten espedienteak	6	27
Izapidetutako gora jotzeko errekurtsuak	30	27
Bingoetan sartzeko debekua	1	4
Kasinoetan sartzeko debekua	30	31
Jokoaren arloko erreklamazioak	149	178
Guztira	225	285

X. grafikoa
Zehapen-espedienteak, urte arteko aldakuntza (2011-2012)



2011. urtearekin alderatuta, hazkuntza handia izan du izapidetutako zehapen-espedienteen kopuru osoak (ia % 30). Bereziki deigarriak dira zigilatzeko kautelazko neurria duten espedienteen buruzko datuak (6-27) eta baimenik gabeko jokoak egitea (6-12). Aurreikusitako gainerako alderdietan ez dago gorabehera handirik.


IKUSKARITZA LANA (ERTZAINZAKO JOKO ETA IKUSKIZUN UNITATEA)

EGINDAKO IKUSKAPENAK

	2011	2012
Joko-lokalak	243	206
Kasinoak	401	291
Bingoak	638	474
Joko- eta jolas-aretoak	546	616
Apustu-lokalak	53	72
Ostalaritzako makinak	4208	3361
Jokoaren zaintza eta kontrola	209	410
Bestelako jarduerak*	54	2
GUZTIRA	6352	5432

*: Txostenak, probak eta entseguak, zigiluak, erreklamazioak, gorabeherak

XI. grafikoa
Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitatearen ikuskaritza-lana (urte arteko aldakuntza)



Ikuskapenen kopurua zertxobait jaitsi da; dena den, adierazgarria da kasinoetan egindako ikuskapenen kopuruaren jaitsiera. Horren arrazoia dugu Nervion Kasinoaren egoitzaren aldaketa. Gainerako itemak antzera daude bi urteetan.

2012KO AGENDA

1. Kudeaketarako beste aplikazio informatiko batzuen (JOIKU) garapena eta mantentze-lanak:
 - Ikuskapenen modulua.
 - Jokoaren modulua.
 - Zehapen-espedienteen kudeaketa.
 - Irudiaren modulua.
2. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren web-orri berriaren ezarketa. Webgune horren barruan ikuskizunen eta jokoaren arloak eraginpean hartzen dituen araudia dago, baita jokoaren enpresa-sektorearentzako datu interesgarriak (homologazioak, produktuen sailkapena, argitalpenak etab.) eta jarduera horiei buruzko hainbat informazio ere.
3. Jokoa eta ikuskizunak kudeatzeko aplikazio berriaren (JOIKU) ezarketa osoa eta erabateko garapena. Jokoaren arloari dagokiona egikaritu da. 2012ko abenduaren 31n aplikazioa guztiz operatiboa da.
4. Jokoaren arloko arau hauek argitaratu dira:
 - 7/2012 Legea, apirilaren 23koa. Horren bidez lege batzuk aldatu dira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.
 - 25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, joko-makina eta -sistemen Erregelamendua aldatzekoa; Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia bigarrenenez aldatzeko dena eta Euskal Autonomia Erkidegoko bingoaren Araudia laugarrenenez aldatzen duena.
 - 39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, Joko-kasinoen Araudia onartzen duena.
 - 2012ko otsailaren 10eko Agindua, Herrizaingoko sailburuarena, abenduaren 4ko Agindua aldatzen duena. Azken honen bidez azaroaren 17ko 600/2009 Dekretuan (joko-makina eta -sistemen Erregelamendua onartzen baitu) aurreikusitako joko-makinen erregulazioa garatzen da.
 - 2012ko urriaren 30eko Agindua; Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena. Horren bidez, joko-makinak elkarrekin konektatzeko sistemen baldintza teknikoak eta beroriek homologatu eta ustiatzeko erregimena zehazten dira.
 - 2012ko ekainaren 28ko Agindua, Herrizaingoko sailburuarena, Bingo Elektronikoaren Erregelamendua onartzen duena.
 - 2012ko azaroaren 28ko Agindua; Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena. Horren bidez, otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuak onartutako bingo-jokoaren Araudia garatzen da.

JOKOAREN ETA IKUSKIUZTEN JARDUEREN BURUZKO EUSKAL AURAUDIAREN EGITURA

Alderdi orokorrak

JOKOAREN LEGEA (1991)

BAIMENDUTAKO JOKOEN KATALOGOA (1996 eta 2010)

7/2012 Legea, apirilaren 23koa. Horren bidez lege batzuk aldatu dira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.

MAKINAK	BINGOAK	KASINOAK	ARETOAK	BESTE JOKO BATZUK
Makinen Erregelamendu berria (2009)	Bingo-jokoaren Araudia (2004)	Kasinoen Araudia (2012)	Aretoen Araudia (1994)	Ausazko konbinazioak (1991)
2009ko abenduaren 4ko Agindua. Makinen Erregelamendua garatzen du	32/2005 Dekretua, otsailaren 22koa. Bingo-araudia aldatzen du	25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Aretoen Araudia aldatzen duena.	277/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, Joko A. eta Jolas A. Araudia aldatzen duena	314/1994 Dekretua, Txartel bidezko Jokoa arautzen duena (1994)
25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Makinen Erregelamendua aldatzen duena.	55/2008 Dekretua, apirilaren 1ekoa, Bingo-araudia 2. aldiz aldatzen duena		39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, Joko-kasinoen Araudia onartzen duena.	Apustu Hipikoen Erregelamendua (2005)
2012ko otsailaren 10eko Agindua, Makinen Erregelamendua garatzen duena	620/2009 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Bingo-araudia 3. aldiz aldatzen duena		Apustu Orokorren Erregelamendua (2005)	
2012ko urriaren 30eko Agindua. Makinak elkarrekin konektatzeko sistemen baldintza teknikoak	2010eko otsailaren 8ko Agindua. Kenketa-portzentajeak zehazten ditu.			
	2011ko otsailaren 28ko Agindua. Kenketa-portzentajeak ezartzen ditu.			
	25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Bingo-jokoaren Araudia aldatzen duena			
	2012ko ekainaren 28koa, Bingo Elektronikoaren Jokoen Erregelamendua onartzen duena			

JOKORAKO MATERIALA HOMOLOGATU AURREKO PROBAK EGITEKO BAIMENDUTAKO ERAKUNDEAK

- LABEIN- TECNALIA
- LGAI TECHNOLOGICAL CENTER, S.A.
- AT4 WIRELESS, S.A.
- BMM SPAIN TESTLABS,
- JOLAS MAKINEI PROBAK ETA ENTSEGUAK EGITEKO OVIEDOKO UNIBERTSITATEKO ZENTROA
- GLI EUROPE BV
- JOLAS ETA AUSAZKO JOKOETARAKO MAKINEI ENTSEGUAK EGITEKO LABORATEGIAK, INDUSTRIA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO FUNDAZIOARENAK
- NMI CERTIN BV
- SLOVENIAN INSTITUTE OF QUALITY AND METROLOGY EL010

- LABEIN- TECNALIA
- LGAI TECHNOLOGICAL CENTER, S.A.
- AT4 WIRELESS, S.A.
- BMM SPAIN TESTLABS,
- JOLAS MAKINEI PROBAK ETA ENTSEGUAK EGITEKO OVIEDOKO UNIBERTSITATEKO ZENTROA
- GLI EUROPE BV
- JOLAS ETA AUSAZKO JOKOETARAKO MAKINEI ENTSEGUAK EGITEKO LABORATEGIAK, INDUSTRIA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO FUNDAZIOARENAK
- NMI CERTIN BV
- SLOVENIAN INSTITUTE OF QUALITY AND METROLOGY EL010

(1996)